

# KALERKI 2011

NAZIOARTEKO XVIII. KALE-ANTZERKI TOPAKETAK • ZARAUTZ Uztailak 7,8,9

**XVIII.**
**urtea**

**Nazioarteko Kale Antzerki Topaketak**
**ZARAUTZ, Uztailak 7-8-9**

*Antolatzailea: Alproja Kultur Taldea*

# KALERKI 2011

*Egitaraua*

| Eg. | NON | TALDEA | IKUSKIZUNA | ORDUA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 7 | Lege Zaharren Enparantza<br>☂ Gaztelekua | HORTZMUGA (E.H.) | LIBERTIA | 18:30 | 2. or. |
| | Kaleetan zehar<br>Lege Zaharren Enparantza | ALPROJA (E.H.) | BAKHARA | 20:00 | 3. or. |
| | Parrokia | VALERIA (Italia) | MANO A MANO | 23:00 | 4. or. |
| 8 | Torre Luzea parkea<br>☂ Lizardi Antzokia | ANITA MARAVILLAS (E.H.) | BLUE BIRD | 19:00 | 5. or. |
| | Lege Zaharren Enparantza | TRAPU ZAHARRAK (E.H.) | JIRA & BIRA | 20:00 | 6. or. |
| | Malekoia-Munoa | DEABRU BELTZAK (E.H.) | WOLVES | 24:00 | 7. or. |
| 9 | Malekoia | TUTATIS TEATRO (Katalunia) | CABALLOS DE MENORCA | 19:00 | 8. or. |
| | Torre Luzeako parkea<br>☂ Gaztelekua | EL NEGRO Y EL FLACO (Argentina) | CHARABIA | 20:00 | 9. or. |
| | Kaleetan zehar | LAITRUM (Katalunia) | PANXUTS | 21:00 | 10. or. |
| | Munoa | MARKELIÑE (E.H.) | ANOMALÍA MAGNÉTICA | 24:00 | 11. or. |

(☂)Ordezko lekua euria eginez gero.



Lege Zaharren Enparantza

Gaztelekuan

18:30ean

7

Osteguna

## HORTZMUGA

(Euskal Herria)

***"Libertia"***

Badago txotxongiloak libre izan daitezkeen mundu bat. Libertia da mundu hori. Hondakinen artean, liburu zahar batean profezia bat dago idatzita, eta bete egingo da laster. Dori, Arthur eta Otto, ahaztutako hiru txotxongilo izango dira hori burutuko dutenak. Libertiarainoko bidaian hainbat erronka eta arrisku aurkituko dituzte.

Libertia abentura fantastikoa da, txotxongiloak, panpina handiak, aktoreen lana eta umorea nahasten dituena. Libertateaz hitz egiten du, baina txikienen ikuspuntutik. Libertia, hitz batean, garena izatera heltzeko denok egin dugun bidea da.



Kaleetan zehar
Lege Zaharren Enparantza

20:00etan

7
Osteguna

## ALPROJA
(Euskal Herria)

***"Bakhara"***

Hil dira energia zaharrak. Tronoa hutsa geratu da. Hemen gatoz indar berriarekin. Eta horiek? Nortzuk dira horiek?

Matematika, honetan erratu egin zen,eta guk sinistu; bat eta bat ez dira bi, bat eta bat BAT da.



Parrokia

23:00etan

7

Osteguna

## VALERIA
(Italia)

***"Mano a mano"***

Ikuskizun honetan poesia eta emozioa uztartzen dira. Eskuen argi eta itzalek gidatuko dute ikuslea ametsen munduraino.



Torre Luzea parkea

Lizardi antzokia

19:00etan

**8**

Ostirala

# ANITA MARAVILLAS

(Euskal Herria)

***"Blue Bird"***

Autrey eta Dunkan, ganbara bateko objetu ahaztuetatik sortzen dira. Elkarrekin bizitzara esnatu eta jolasa, laguntasuna eta maitasuna topatzen dituzte. Abentura zirraragarri honetan TXORI URDINA ahazten dute, eta txoria hegan doa ihesi.

Biak txoriaren bila doaz sorpresaz beteriko bidaia batean. Topatuko ote dute azkenik Autrey eta Dunkanek zoriontasuna?



Lege Zaharren Enparantza 20:00etan

**8**
Ostirala

# TRAPU ZAHARRAK
(Euskal Herria)

***"Jira & Bira"***

Gozotegi famatu batetako salmenta departamentuko buruzagi batek, langabezian denbora batean egon ondoren, krisi garairako autopromozioari buruzko esku-liburu bat idatzi eta sarean zintzilikatzen du.

Ikaragarrizko arrakasta du eta konferentziak emateko eskakizunak gehituz doaz.

Marketing-eko txaman berri honek demostrazio pertsonalizatuak eskeiniko ditu langabezian epe luzez daraman jendearentzako.



Malekoia / Munoa 24:00etan

8
Ostirala

# DEABRU BELTZAK
(Euskal Herria)

### *"Wolves"*

Pianojole bat, arraroa eta iluna. Bere musikaren bitartez hiria otsoen eraso batetik libratuko du. Batzuk zorra ahaztuko dute eta pianojolea engainatua sentituko da. Ondorioz, hirira itzuliko da otsoekin, kaosa eta nahasmena sortuaz. Otsoak, iluntasuna, burruka, mendekua eta ikusmira, sentsazioen ikuskizun honetan.



Malekoia

19:00etan

**9**

Larunbata



# TUTATIS TEATRO

(Katalunia)

## *"Caballos de Menorca"*

Menorkako ospakizunaren ikuspegi pertsonal bat dugu, zaldiaren oinarrizko animalitasuna irudikatu eta ospakizunaren antzezlan garaikidea uztartzen dituena. Kaleko ikuskizuna, ikuslegoa harritzea lortuko duena.



Torre Luzeako parkea
Gaztelekua

20:00etan

9
Larunbata

## EL NEGRO Y EL FLACO
(Argentina)

### *"Charabia"*

Hiru pertsonaia absurdo, hizkuntza berezi bat hitz eginez. Gurpildun tresna berezi bat dakarte eta poliki-poliki beraien mundu berezira garamatzate, beraien hizkuntza ulergarri bilakatuaz. Umorea, musika, oreka, malabarrak, dantza?... Une poetikoak, komikoak eta objetuen manipulazoa dira nagusi ikuskizun honetan.



21:00etan

**9**
Larunbata

# LAITRUM
(Katalunia)

***"Panxuts"***

Hiru tripontzi herriko kaleetatik, beraien eskaria non utzi behar duten jakin nahian. Eguneroko ekintzak. Inprobisazioan oinarrituriko lana.

Bestalde, ikuslegoa, beraiek daramatzaten fardelen barrenera begira jarriko dute, bertan ikuskizun bat oparituz, modu intimoan, hurbilean, eta ikusle bakar batentzat.



Munoa 24:00etan

9
Larunbata

# MARKELIÑE
(Euskal Herria)

***"Anomalía magnética"***

Antzezlan honek autopsia bat egiten dio sistemari eta horrek aurrerabideari dion ikuspegi baikorrari. Hau guztia, inguratzen gaituen sentipen ustelduaren jatorria jakiteko.

Antzezleek ironia erabiliko dute, proiekzio, jolas eszeniko eta metaforekin estetika sarkastikoa lortzeko.

Alproja
kultur taldea

## *Antolatzailea*:
## ALPROJA KULTUR TALDEA

ZARAUZKO UDALA
KULTURA SAILA

*Iharduera honek Zarauzko Udaleko Kultura Saileko laguntza jaso du*